



2021-04-16

**NON:** Eskolako musika gelan.

**NOIZ:** Apirilak 16, 14:00etatik 16:00etara

**Bilerara deituak:**

**Ikasleen ordezkari gisa:** Ixiar Bikuña, Irati Nafarrate, Laia Zubia, Aimar Etxaniz, Iker Abad eta Oier Errasti.

**Gurasoen Ordezkari gisa:** Edurne Galindez eta Kontxi Kortabarria.

**Irakasleen ordezkari gisa:** Maite Aperribai eta Saioa Uriarte.

**Udaleko ordezkari gisa:** Oihana Ameskua.

## **ELKARBIZITZA BEHATOKIA GAIORDENA**

1. Elkarbizitza Behatokiko kideen aurkezpena.
2. Asteburuko eskola inguruko eremuaren erabileraren inguruko hausnarketa eta irtenbide posibleak adostea.
3. Eskolako izena aukeratzeko prozesua eta plangintza adostea.

### **ADOSTUTAKO PUNTUAK:**

2. -Eskola eta udalaren aldetik gazteekin biltzeko deialdia luzatuko zaie datozen 15 egunetan. Bilera horren helburua, eskola eraikinaren inguruan gaur egun ematen den egoera hausnartzea da; gazteek eta eskolak dituzten beharrak entzun eta guztion artean elkarlanean erabilera hobe baten alde irtenbide bat jorratzen hastea.

-Eskola eremua era egokian erabiltzeko bideo bat egingo da eta kartelak jarriko dira ere.

3. -Eskolako izena aldatzeko prozesuko plangintza honakoa izango da:

1. Eskola Komunitateak izen berria proposatzeko irizpideak zehaztuko ditu.
2. Irizpide hauek kontuan hartuz eskola komunitateak eta Aramaioko herritarrek aukera izango dute izenak proposatzeko.
3. Onartuak izan diren izen guztien artean eskola komunitateak lehenengo bozketa egingo du. Ikasle eta langileek fisikoki eta gurasoek on-line.
4. Izen bozkatuenak kontuan hartuz (aurrera zehaztuko da kopurua) eskola komunitateak eta Aramaioko herritarrek bigarren bozketa egingo dute, Ikasle eta langileek fisikoki, familien on-line eta herritarrek on-line edota presentzialki.
5. Aukeratua izango den izena Organo Gorenak onartu beharko du eta Udalaren, Iksuskariaren, Arabako Hezkuntza Ordezkaritzaren oniritzia jaso ondoren Eusko Jaurlaritzak onartu beharko du ere.



-Izena aldatzeko prozesuan ikasle ordezkariak eta elkarbiizta batzordeko kideak izango dira gidari. Egin beharreko lanak kontuan hartuz plangintza eta denboralizazioa zehaztuko da.

-Izenak proposatzeko irizpide hauek adostu dira Behatokian:

1. Errespetuzko izena izatea.
2. Hizkuntza euskara izatea
3. Bakarra izatea; izen bereko eskola edota elkarterik ez egotea.
4. Aramaioko testu-inguruaren, herriarekin lotura izatea (natura eta mitologiarekin harremana izan dezake ere)
5. Adierazteko erraza izatea.
6. Herritar ospetsu baten izen propioa ez izatea.

Eskola komunitateari irizpide hauek hobetu eta osatzeko aukera emango zaio: horretarako web-orrian adieraziko dira eta hberkuntzak jasotzeko epe bat zabalduko da.